

GARIZUMAKO III. IGANDEA (B)

Otoitza

Errukiaren Aita eta on guztien iturria zaren Jauna,
 baraua, otoitza eta limosna
 ipintzen dizkiguzu geure bekatuen sendagarri;
 begira bihotz onez
 bere ahuleria aitortzen duen zeure herriari,
 eta bizkor gaitzazu, zeure erruki haundiz,
 bekatuaren zamapean aurkitzen garenok.
 Zure Seme Jesu Kristo.

I. IRAKURGAIA: Ex 20, 1-17

Legea Moisesen bidez eman zen.

Exodo liburutik

Egun haietan, Jaunak hitz hauek esan zituen: «Ni naiz Jauna, Ejiptoko lurretik, morroi etxetik, atera zaitudan zure Jaungoikoa. Ez duzu izango Ni beste Jaungoikorik.

[Ez duzu egingo zuretzat sasijainkorik: goiko zeruan, beheko lurlean edota lurpeko uretan direnen irudirik. Ez zara ahuspeztuko itxura horien aurrean; eta ez dituzu zerbitzatuko. Ni, Jauna, zure Jaungoikoa, espatsua bainaiz; gorroto didatenean, gurasoen bekatua umeengan zigortzen dut, hirugarren eta laugarren gizaldiraino; baina Ni maite nautenentzat eta nire aginduak gordetzen dituztenentzat, errukia dut milagarren gizaldiraino.]

Ez hartu gezurrez ahotan Jaunaren, zure Jaungoikoaren, izena; Jaunak ez baitu zigortu gabe utziko, Haren izena gezurretan darabilkienik.

Izan ezazu gogoan larunbat eguna, santutzeko. [Sei egun ariko zara lanean, eta orduan egingo dituzu zure lan guztiak. Zazpigarren eguna, berriz, atsedeen eguna da, Jaunari, zure Jaungoikoari, eskainia. Egun hartan ez duzu batere lanik egingo, ez zuk, ez zure semeak, ez zure alabak, ez zure morroiak, ez zure neskameak, ez zure abereak, ez zure etxean dagoen arrotzak. Jaunak sei egunez egin zituen zeru-lur-itsasoak, eta horietan dagoen guztia; eta zazpigarrenean atsedeen hartu zuen; horregatik bedeinkatu du Jaunak larunbata, eta santu egin.]

Aintzat eduki aita eta ama, luzaroan bizi zaitezten, Jaunak, zure Jaungoikoak, emango dizun lurlean. Ez duzu inor hilko. Ez duzu ezkontz nahasterik egingo. Ez duzu lapurtuko. Ez duzu inoren aurka gezurrezko testigantzarik egingo.

Ez duzu inoren etxerik, ez inoren emazterik, irrikatuko: ez morroirik, ez neskamerik, ez idirik, ez astorik, ez besterena denik ezer».

ERANTZUN SALMOA: Sal 18, 8-9. 10-11

R/. Zuk dauzkazu, Jauna, betiko biziaren hitzak.

Jaunaren legea bikain, barrena birbizteko,
 Jaunak hots egina sendo, ezikasiak eskolatzeko.
 Jaunaren arauak zuzen, bihotzaren asegarri,

Jaunaren aginduak garbi, begien argi. R/.

Jaunaren beldurra garbi, iraungarri betiko,
Jaunaren erabakiak egiatzko, guztiak orobat bidezko.
Urrea baino, urre araztua baino maitagarriago,
eztiորrazia baino gozoago. R/.

II. IRAKURGAIA: 1 Ko 1, 22-25

*Guk, Jesu Kristo gurutziltzatua erakusten dugu,
gizakientzat behaztopa dena,
baina deituentzat Jaungoikoaren jakinduria.*

San Paulo Apostoluak Korintotarrei

Senideok: Judutarrek ezaugarri eske dabilta; greziarrak, jakinduri bila; guk, berriz, Jesu Kristo gurutziltzatua erakusten dugu, judutarrentzat behaztopa dena eta greziarrentzat zorakeria; baina deituentzat –judutar izan, nahiz greziar– Jaungoikoaren indar eta Jaungoikoaren jakinduria den Kristo. Jaungoikoaren zorakeria, gizakiak baino jakintsuagoa baita; eta Jaungoikoaren ahuleria, gizakiak baino indartsuagoa.

EBANJELIOA: Jn 2, 13-25

Ebanjelio aurreko txatala: Jn 3, 16

V/. Hain maite izan baitu Jaungoikoak mundua,
bere Seme bakarra eman dio;
Hari sinesten dionik inor gal ez dadin,
baizik eta betiko bizia izan dezan.

*Xeha ezazue jauretze hau,
eta hiru egun barru jasoko dut.*

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Joanen liburutik

Aldi hartan, judutarren Pazkoa hurbil zegoen, eta Jesus Jerusalemara igo zen. Jauretzean idi, ardi eta uso saltzaileak aurkitu zituen, eta dirulariak eserita. Zigor bat lokarri egin eta jauretzetik bota zituen denak, ardi eta idiekin, diruak sakabanatuz eta mahaiak irauliz. Eta uso saltzaileei esan zien: «Ken horiek hortik! Ez bihurtu azoka-etxe nire Aitarene etxea». Eta ikasleak, idatzirik dagoenaz gogoratu ziren: «Zure etxearekiko maitemina jango nau».

Orduan judutarrek, tartetik sartuta, esan zioten: «Zer ezaugarri ematen diguzu, hori egiteko?» Eta Jesus: «Xeha ezazue jauretze hau, eta hiru egun barru jasoko dut». Judutarrek erantzun zioten: «Berrogeitasei urte behar izan ziren jauretze hau egiteko, eta Zuk hiru egunetan jaso?» Baina Jesus bere gorputzaren jauretzea esan nahi zien.

Hilen artetik berpiztu zenean, gogoratu ziren ikasleak honetaz, eta sinetsi zuten Liburu Santuak eta Jesusen esandako hitza.

Pazko jaietan Jerusalemenean zegoen bitartean, askok sinetsi zuten Haren izena, egiten zituen ezaugarriak ikusita. Baina Jesus ez zitzaizkien guztiz irekitzen, ezagutzen baitzituen denak; ez zeukan Hark gizonaren berri inork eman beharrik, bai baitzekien zer dagoen gizaki bakoitzaren barruan.

Oparigaien gainekoa

Opari honek, Jauna, irits diezagula
eskatzen dizugun barkamena,
eta geure zordunei barkatzera eraman gaitzala.
Jesu Kristo.

Jaunartze ondorengoa

Betiko salbamenaren agiria dugu, Jauna,
hartu dugun oparia;
egizu, orain sakramentuz ematen zaiguna
bere betean irits dezagula geroko bizitzan.
Jesu Kristo.